

UEU: ZILARREZKO EZTEIAK

Ezkontzen diren guztiak zilarrezko ezteiak ospatzera iristen ez diren modu berean, kulturaren eta irakaskuntzaren arloan ere, ez da samurra izaten hogeita bost urte luzez proiektu baten fideltasunean irautea. Izan ere, ezkontzan abiatutako maitasun-bizitza oztopoz beteriko bidea baita, ezkontideen ahaleginaz gauzatu eta frutu ematekoa izan daitekeena, baina batzuetan, ahalegin egokiaren ezean, zimeldu edo usteldu egin daitekeena. Antzera gertatzen da hasieran ilusioz eta utopiaz beteriko proiektu kulturalekin ere, horrelakoetan ereindako hazia nork zaindu eta nork landu egon ezean, proiektua bera desagertzeko bidean sartzen baita.

Esandakoagatik, ez du meritua makala *Udako Euskal Unibertsitatearen* inguruan (laburduraz UEU deritzona) eginiko arnasa luzeko ahaleginak, bere zilarrezko ezteien ospakizunetan eta lanetan sartzeko unean dagoena. Jaio zenean jarritako helburua aurrean dugularik, badirudi oraindik ere aurrerantz segitzeko prest dagoela, eta beharrezkoa balitz, urrezko ezteiak ospatzeko ere. Hori guztia, lehenago lortu beharreko helburua lortu ezean: euskaraz arituko den eta euskal lurralde eta herri-tar guztien zerbitzupean egongo den *Euskal Unibertsitatea*, alegia. Gauzak horrela, euskaldunon ahalegin bateratuaz egin-kizun dagoen proiektu erraldoi hori gauzatuko dugulako kon-fidantzaz, artikulua honetan UEUren orain arteko historia laburra aurkeztuko dugu.

1972: UEUren abiapuntua: Baionako Euskal Kultur Astea

Gutxien uste den lekuetan sortzen dira batzuetan landararik emankorrenak. 1970ko hamarkadaren hasieran, ordurako jadanik ikastola-mugimendua abiatu eta Euskara Batuen sorrera-prozesua puri-purian zegoela, Baionako Euskal Erakustokiaren babespean bizpahiru urtez Euskal Kultur Asteak antolatu ziren, Pierres Xarriton eta Jean Haritzelhar jaunen gidaritzapean. Horietako batean, 1972koan hain justu, Karlos Santamariak oso hitzaldi eta ideia interesgarria azaldu eta plazaratu zuen, administratiboki Frantziakoak ziren lurretan zegoen Ipar Katalunian garai hartan urtero antolatzen zen *Universitat d'estiu* izeneko katalanerazko unibertsitatearen ereduaren arabera.

Gainera, Karlos Santamariak ondo desberdindu zituen geroago eztabaidaren muina izango ziren bi kontzeptu: Euskal Herriko Unibertsitatea eta Euskal Unibertsitatea. Gauzak hitz gutxitan ulertzeko, batetik, Euskal Herriko Unibertsitatea Euskal Herriko lurretan kokaturiko unibertsitatea litzateke, besterik gabe; oraingo ikuspuntuaren arabera ulertzeko, garai hartako burruka nagusia euskal barruti unibertsitarioa lortzearen aldekoa zela esan behar dugu, orduan Valladolid, Salamanca eta Zaragozaren menpe baixeunden hegoaldeko euskaldunok. Eta, bestetik, Euskal Unibertsitatea beste zerbait zen: irakaskuntza euskaraz burutuko zuena, euskal irakaskuntza-sistemen goren maila gauzatuko zuena, euskaldunok gidatu eta antolatua. Santamariak argiro azaldu zuenez, Euskal Unibertsitatea euskaldunon burujabetzarekin loturiko kontzeptua da izatez, herri modura irakaskuntza-sistema propio eta osoa antolatzeko dugun eskubidean oinarritua.

Esan bezala, Karlos Santamariaren ideia ontzat harturik, Euskal Kultur Asteen antolatzaileek aurrerapausoa ematea erabaki zuten, eta Manex Goienetxe idazkari zelarik, 1973.urtean I. Udako Euskal Unibertsitatea antolatu zen Donibane Lohizunen, orduan bizirik zeuden eta euskal kulturaren historian garrantzi handia izan duten euskaltzale gehienen partaidetzaz (esandako

antolatzaileez gain, Villasante, Mitxelena, Monzon, Lafitte eta abar luzea). Guztira laurogei bat lagun izan ziren, hamabostaldian zehar burututako lehen ekitaldi hartan, eta, zer esanik ez, oso arrakastatsua suertatu zen, batez ere bertara hurbildu ziren gazteak akuilatu eta adoretu zituelako, hasiberria zen ekimenari jarraipena emateko prest. Katea eten gabe zegoen eta erreleboa hartuko zuten kinu berriak loratzen hasi ziren.

Lehenengo bi ekitaldiak Donibane Lohizunen burutu ziren eta hurrengo biak Uztaritzen. Urte emankorrak izan ziren haiek, orduan finkatu eta errotu baitziren UEUren izaeraren oinarri eta helburuak, gaur arte iraun dutenak. Ulertzeko denez, Franco bizirik baitzegoen hasieran, Lapurdiko lurak aukeratu ziren, baimen administratiboek ezarritako trabak gainditzeko egokienak zirelakoan. Baina, Franco hil ondoren, zirt edo zart egiteko unea etorri zen, eta Pirinioaren hegoaldeko euskal lurretara pasatu beharrekoa. Hori 1976. urteko ekitaldian erabaki zen Uztaritzen. Eta zer leku aproposagorik euskaldunon hiriburu historikoa baino: Iruñea, alegia. Eta lekuarekin batera, hurrengo urteetan UEUren idazkari orokorra izango zena ere aukeratu genuen: Martin Orbe jauna.

1977: Aro berriaren hasiera Iruñean

Esan bezala aro berri bati eman genion hasiera 1977an, Martin Orberen gidaritzapean UEUren sendotze-prozesua izango zena. Iruñeko ekitaldietan hainbat aurrerapauso eman ziren UEUren egituratze-bidean. Alde batetik, partaidetza gorantz joan zen, eta, bestetik, hitzaldi-sorta izatetik, jakintza-sail desberdinez osaturako ekimen berezituak antolatzena pasatu zen. Gainera, idazkaritza iraunkorra eratu zen Talde Eragile baten gidaritzapean.

Ez da erraz azaltzekoa, urte horietan Martin Orbe idazkari orokorrak eginiko lan isil eta emankorra. Bulego-lan aspergarria txukuntasunez antolatzeaz gain, bada arlo bat beraren bultzadapean urte horietan abiatu zena eta euskaigintza uni-

bertsitarioaren oinarrietan izan duen garrantziagatik bereziki aipatzea merezi duena. Arlo hori testugintzarena da.

Hain justu, 1977. urtetik aurrera abiatu baitzen UEUren testugintza oparoa, unibertsitate mailako ehundik gora liburu argitaratzera eramango zuena, hainbat zientzi arloren lexikologiaren oinarri bihurtu direnak eta ikasleen lagungarri, ikasketak euskaraz burutu ahal izateko. Biologia, Fisika, Kimika Matematika, Ekonomia, Medikuntza, Estatistika, Kazetaritza, Psikologia... eta beste hainbat arlo landu dira UUEko testugintzan urte hauetan, maila eta kalitate linguistiko-zientifiko handiko liburuak argitaratuz.

Gainera, Iruñeko urte hauetan gauzak zer bait aldatu dira Euskal Herriko politikan ere. Batetik Espainiako Konstituzioa ezarri zenetik eta horren arabera Erkidegoetako Autonomia Estatutuak, UEUko partaide batzuk ekimen hori desagertze-aldeko apostua egin zuten, jadanik zentzurik ez zuelakoan. Partaide horiek UPV/EHUko udako ikastaroetan integratu behar zela uste izan zuten. Baina, orduan, Santamariak azaldutako desberdintasuna azaldu zen berriro ere, eta UEUren helburua bestelakoa zela ikusi zen argi eta garbi, aurrera egiteko ahaleginean tinko iraunez. Eta denborarekin bere nortasun propioa bereganatu zuen UEUk, euskara hutsezko ahaleginean. Partaidetzak ere gorantz egin zuen, 500-700 partaideen inguruan egonkortu zelarik.

Bide horretatik segituz, 1990-94 urteen bitartean, berriro ere plazaratu zen Euskal Unibertsitatea sortzearen premia. Ideia horren inguruan hainbat mintegi eta eztabaida antolatu ziren, eta bertan izandako hausnarketen ondorio modura, zenbait puntu birplanteatu ziren, hala nola: Euskal Unibertsitatearen helburua lantzen eta diseinatzen hastea, helburu horretan beste gizarte-sektoreen partaidetza lortzea, helburu hori gizarteratzen saiatzea... eta, helburuarekin batera, UEU berrindartzea. Ondorio horiek guztiok nolabait sendo finkatzeko, kongresua antolatzea erabaki zen.

1995: UEUren lehenengo kongresua, Donostian

Eztabaidaren heldutasun-mailak horrela eskatzen zuelakoan, UEUK bere I. Kongresua antolatu eta burutu zuen 1995eko apirilaren 29an. Kongresuko ondorio modura ateratako agiria-
ren sarrera orokorrean azaldu zenez, <<eztabaida ez da baka-
rrik UEUn gertatzen ari. Euskal Herrian bizi-bizirik dagoen
gaia dugu Unibertsitatearena, eta horren adibide ditugu: uni-
bertsitatearen euskalduntzearen arazoak, irakaslego propioa-
ren inguruko eztabaida eta tentsioak, EAEko parlamentuan
aurki eztabaidatuko den Unibertsitatearen erreformari buruz-
ko Legea, alderdi politiko ezberdinak gai horren inguruan bi-
deratzen ari diren eztabaidak, UPV-EHU eta UPN-NUPren arte-
an bideratzen ari den kolaborazioa eta distritu bakarrari bu-
ruzko eztabaida, Iparraldean bertako distritua lortzeko ematen
ari diren urratsak...>>. Pentsamolde horretatik abiatuz antola-
tu zen, bada, kongresua, <<egindakoen eta egitekoen azterketa
bideratzeko eta bere etorkizunerako helburuak eta lan-ildoak
finkatzek>>.

Kongresuko agirietan argiro azaltzen denez, besteren artean,
honako helburu hauek aipatu ziren bereziki:

<<- Unibertsitatean euskara normalizatzearen bidean Eus-
kal Unibertsitatearen gaian sakontzea.

- Etorkizunerako proiektua lantzea eta arlo bonetan era-
gile diren gizarte-sektore eta erakundeei eskaintzea.>>

Ikus daitekeenez, behin eta berriro ageri zaigun gaia da Eus-
kal Unibertsitatearena. Eta I. Kongresua bukatu ondoren ere,
UEUK aurrera segitzen du bere ahaleaginean betiko bidetik,
oraindik heldu barik dagoen frutua errealtate bihurtu arte.

Euskal Unibertsitatea: heldu beharreko frutua

Hasierara itzuliz, duela hogeita bost urte Karlos Santamariak
adierazitako Euskal Unibertsitatea, oraindik ere egingai dela
eta eginkizun dagoela esan dezakegu. Zalantzarik ez dago au-

irerapauso asko eman direla, helburutik hurbilago egoteko aukera ematen digutenak. Garai hartan ez bezala, Euskal Herrian zenbait unibertsitate baditugu, publikoak eta pribatuak, bai hiru lurralde baskongadoetako Erkidegoan, bai Nafarroan, eta bai Lapurdin ere (euskal lurraldeetan hainbat izen, UPV/EHU, UPNA, Baionako Fakultate eta Institutuak, Deustua, Mondragón Unibertsitatea, Opus Dei...). Baina Euskal Unibertsitateerik ez dugu.

Bestalde, Euskal Unibertsitatearen lorpena ez da UEUko kideei soilik dagokigun arazo bat, euskadun guztioi dagokigun burujabetza-arazoaren atal bat baizik. Martin Orbek 1987ko barne-dokumentu batean zioenez, <<*Euskal Unibertsitatearen erreibindikazioa ez zen UEUn sortu. Euskaldungoaren baitan onartua zen Euskal Unibertsitatearen beharra eta hortik zetorren eskakizuna. "Nahi dugun, behar dugun, zor zaigun Unibertsitatea" lemapean bideratu zen geroz eta hedatuagoa eta ozenagoa zen aldarria. UEU bera, gehienbat, berri gogo horren ondorioztat joko nuke*>>.

Ez bakarrik eskakizun horren ondorio. UEU helburu hori lortzeko jaio zen eta horretarako bizi da, 1977ko agirian argi utzi zuenez: <<*UEUren ardatza betidanik Euskal Unibertsitatearen aldeko eskakizuna izan da, beronen ezaugarri nagusiak hiru puntuotan biltzen ditugularik: unibertsitate nazionala, herritarra eta euskalduna*>>. Horretarako sortu zen eta ahalegin horretan dirau.

J. R. Etxebarria